

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure proiektua funtziona dezan, hainbat puntu izan behar ditugu kontuan. Hasteko, horietako bat funtsezko jarduerak izango dira. Funtsezko jarduerak enpresa batek egin beharreko obligazioak gauzatzeko zehaztu behar dira, hala nola, negozio ereduak funtziona dezan. Funtsean honako hauek dira: Ekoizpena, arazoak kompontzea eta plataforma edo sareko jarduerak. Batzuetan aurretik aipatutako jarduerak, horiek beste enpresa batzuen esku edo kampoko enpresen esku utzi daitezke, baina gure kasuan guzti hauek gure esku egongo dira enpresaren barnean. Lehenik eta behin, gure kasuan ekoizpena aplikazioa sortzea eta mantentzea da. Hau da, jabeak eta langileak izango ditugu egunero aplikazioa eguneratzen eta ekintza berriak sortzen, ideia anitzak sortuz. Gainera, partaideei oharrak edo mezuak bidaliko dizkiete eguneratze berrietaz berri izateko. Bigarrenik, arazoan aurrean, arduradun talde bat izango du. Horrela, partaideren batek edo edonork kezka edo arazoren bat izanez gero, gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango du. Hau da, "bezeroarentzako arreta" izango dugu eskuragarri edozein momentutan. Eta azkenik, plataforma sortuko dugu, gure kasuan aplikazio bat. Gure lehentasuna izango da, etengabe aplikazioa eguneratzea eta sektore ezberdinetarako taldeak sortzea arduradun bezala. Gainera, gehigarri bezala gure aplikazioa pertsonalizatuta egongo da, lehentasunei garrantzia emanez, eta batez ere eskuragarritasuna bermatuz. Horrela, gure jarduera guztiak batera elkarlanean egingo dute lan eta eguneraketa jarduera oso garrantzitsua izango da gure proiektuan.